

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: **1101/2008 ERREGELAMENDUA, (EE, EURATOM) EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILURENA, 2008ko urriaren 22koa, Sekretu estatistikoak babestutako informazioak Europako Erkidegoetako Estatistika Bulegora transmititzeari buruzkoa**

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: «*REGLAMENTO (CE, EURATOM) N° 1101/2008 DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 22 de octubre de 2008, relativo a la transmisión a la Oficina Estadística de las Comunidades Europeas de las informaciones amparadas por el secreto estadístico*».(Diario Oficial de la Unión Europea, L 304/70, 2008/11/14)

1101/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 304/70, 2008/11/14koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

**1101/2008 ERREGELAMENDUA, (EE, EURATOM) EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILURENA,
2008ko urriaren 22koa
Sekretu estatistikoak babestutako informazioak Europako Erkidegoetako Estatistika Bulegora
transmititzeari buruzkoa
(Bertsio kodetua)
(Testu egokia EEeri dagokionez)**

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta, bereziki, haren 285. artikulua,

Energia Atomikoaren Europako Erkidegoa eratzeko Tratatuaz aztertu dute, eta bereziki haren 187. artikulua.

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraitu zaio ⁽¹⁾.

Alderdi hauek kontuan hartu dituzte:

(1) Kontseiluaren 1990ko ekainaren 11ko 1588/90 Erregelamendua (Euratom, EEE), sekretu estatistikoak babestutako informazioak Europako Erkidegoetako Estatistika Bulegoetara transmititzeari buruzkoa ⁽²⁾, askotan aldatu dute eta sarritan funtsezko aldaketak izan dira ⁽³⁾. Horregatik, Erregelamendu hori kodetzea komeni da, argiagoa eta arrazoizkoagoa izan dadin.

(2) Batzordeak informazio osoa eta fidagarria izan behar du Tratatuak hari emandako zereginak betetzeko. Kudeaketa eraginkorra lortzeko asmoz, komenigarria litzateke Europako Erkidegoetako Estatistika Bulegoak, aurrerantzean «Eurostat» deituko denak, erkidego mailako estatistikak eta txosten egokiak osatzeko beharrezkoa den estatu mailako estatistika-informazio guztia izatea

(3) Estatu kideek Batzordeari bere lana errazteko obligazioa daukate, EE Tratatuaren 10. artikulua eta Euratom Tratatuaren 192. artikulua ezartzen duten bezala. Eta, horrenbestez, horretarako beharrezkoa den edozein informazio ere eman behar zaio. Horrez gain, isilpeko datu estatistikorik ez izatea Erkidego mailako informazio galera larria da Eurostatentzat, eta oztopo handia da Erkidegoari buruzko azterketak eta estatistikak egiteko.

(4) Estatu kideek ez dute sekretu estatistikoari buruzko xedapenak bete behar dituztela argudiatzen jarraitu beharrik, ezarrita baitago Eurostatek estatistikako institutu nazionalen datuen konfidentzialtasun-berme berak eskaintzen dituela. Berme horiek Erkidegoaren Tratatuaren agertzen dira, zehatz-mehatz esateko EEren Tratatuaren 287. artikuluan eta Euratom Tratatuaren 194. artikuluko 1. paragrafoan; horrez gain, baita Kontseiluaren 1968ko otsailaren 29ko 259/68 Erregelamenduko 17. artikuluan ere (EEE, Euratom, IAEE), Europako Erkidegoko funtzionarioen Estatutua eta Erkidego horretako beste eragile batzuei aplikagarri zaien erregimena ezartzen dituen, eta Batzordeko funtzionarioentzako denbora baterako neurri aplikagarri zehatzak ezartzen dituen ⁽⁴⁾. Horrez gain, gehiago ere bermatu daiteke, Erregelamendu hau aplikatuz har daitezkeen neurri egokiak bidez.

(5) Edonork Erregelamendu honek babesten duen sekretu estatistikoak urratzen badu, zigor eraginkorra jaso beharko du.

(6) Eurostateko funtzionarioek eta gainerako eragileek dituzten eginbeharrak ez betetzeak, borondatez edo zabarkeriaz, diziplina-zehapenak aplikatzea eragingo du, eta, hala balegokio, baita sekretu profesionala urratzeagatik zehapen penalak aplikatzea ere, Europako Erkidegoetako pribilegio eta immunitateei buruzko Protokoloko 12 eta 18. artikuluen xedapen konbinatuei jarraituz.

(7) Erregelamendu honek estatistikako institutu nazionalen eskumenen esparruan sekretu estatistikoak babesten dituen datu estatistikoak Eurostati transmititzeari buruzkoa da soilik, eta ez du eraginik Batzordeari beste edozein informazio mota transmititzeari buruzko Erkidegoaren zuzenbide edo zuzenbide nazionalako xedapen zehatzetan.

(8) Erregelamendu hau EE Tratatuaren 296. artikuluen 1. paragrafoaren a) idatz-zatian xedatutakoan eraginik izan gabe onartu da. Artikulu horrek dioenez, estatu kideek ez dute informaziorik emateko obligaziorik baldin eta beraien segurtasunaren kontratatzat jotzen badute.

(1) Europako Parlamentuaren Irizpena, 2006ko abenduaren 14koa, (C 317 E EO, 2006.12.23koa, 600. or.), eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko irailaren 25ekoa.

(2) L 151 EO, 1990.06.15ekoa, 1. or.

(3) Ikus I. eranskina.

(4) L 56 EO, 1968.03.04koa, 1. or.

1101/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 304/70, 2008/11/14koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(9) Erregelamendu honen xedapenak aplikatzeko, eta bereziki Eurostati transmititutako isilpeko datu estatistikoaren babesa bermatzekoak, beharrezkoa da giza baliabideak, baliabide teknikoak eta finantza-baliabideak izatea.

(10) Egokia da Erregelamendu hau betearazteko nahitaezkoak diren neurriak onartzea, Kontseiluaren 1999ko ekainaren 28ko 1999/468/EE Erabakia —Batzardeari esleitutako betearazpen-eskumenak erabiltzeko prozedurak ezartzen dituen— betez ⁽¹⁾.

HORRENBESTEZ, ERREGELAMENDU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

1. Erregelamendu honen xedea honako hau da:

a) agintari nazionalak Europako Erkidegoetako Estatistika Bulegoari (aurrerantzean «Eurostat» deituko zaio), isilpeko datu estatistikoak transmititzeko baimena ematea;

b) Batzardeak transmititutako datu guztiak isilpekoak izaten jarraitzeko neurri guztiak hartuko dituela bermatzea.

2. Erregelamendu hau sekretu estatistikoari soilik aplikatuko zaio: Estatistikoak ez diren beste sekretu batzuek babesteari buruzko xedapen zehatzei ez die eragingo, Erkidegokoak izan zein estatukoak izan.

2. artikulua

Erregelamendu honetan kontzeptuek esanahi hauek dituzte:

a) «isilpeko datu estatistikoak»: 1997ko otsailaren 17ko Kontseiluko 322/97 (EE) Erregelamenduko ⁽²⁾ 13. artikuluan zehazten direnak. Erregelamendua Erkidegoko estatistikei buruzkoa da;

b) «erakunde nazionalak»: Estatistika institutu nazionalak eta erkidegoentzat datu estatistikoak bildu eta esplotatzearen ardura duten gainerako institutu nazionalak.

c) «persona fisikoaren bizitza pribatuari buruzko informazioa»: pertsona fisikoaren bizitza pertsonalari eta familia-bizitzari buruzko informazioa, estatu kideen legeria edo praktika nazionalak definitutakoa.

d) «estatistika-helburuekin erabiltzea»: Estatistika-koadroak prestatzeko edo estatistika-azterketa ekonomikoak egiteko soilik erabiltzea; ezingo dira administrazio-xedeetarako, edo xede judizial edo fiskaletarako erabil, ez eta inkestatutako unitateen kontrako kontrolerako ere;

e) «estatistika-unitate»: Eurostati transmititutako estatistika-informazioa ematen duen oinarrizko unitatea;

f) «identifikazio zuzena»: estatistika-unitate bat bere izena, helbidea edo ofizialki emandako eta jendaurrean ezagutarazitako identifikazio-zenbaki bat oinarri hartuta identifikatzea;

g) «identifikazio ez-zuzena»: Estatistika-unitate bat f) idatz-zatian aipatu ez den bide bat erabiliz identifikatzea;

h) «Eurostateko funtzionarioak»: Eurostaterako lan egiten duten Erkidegoko funtzionarioak, Europako Erkidegoko funtzionarioen Estatutuaren 1. artikulua araberak.

i) «Eurostateko beste eragile batzuk»: Europako Erkidegoko beste eragileei aplikatzeko erregimenaren 2.-5. artikuluen araberak, Eurostatera bidalitako Erkidegoko funtzionarioak.

j) «hedapena»: datuak ematea, edozein modutan: argitalpenak, datu-baseetarako sarbidea, mikrofitxak, telefono bidezko komunikazioa, etab.

3. artikulua

1. Erakunde nazionalak isilpeko datu estatistikoak Eurostati transmititzeko baimena izango dute.

2. Sekretu estatistikoari buruzko xedapen nazionalak ezingo dira erabili Eurostati isilpeko datu estatistikoak transmititzearan aurka, Erkidegoko estatistika arautzen duen Erkidegoko zuzenbideko egintza batek datu horien transmisioa aurreikusten duenean.

(1) L 184 EO, 1999.07.17koa, 23. or.

(2) L 52 EO, 1997.02.22koa, 1. or.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

3. 2. paragrafoan arabera, Eurostati isilpeko datu estatistikoak transmititzerakoan estatistika-unitateen identifikazio zuzena ezinezkoa izango da. Horrek ez du esan nahi, estatu kideen legediaren arabera, transmisioari buruzko irismen handiagoko araurik egongo ez denik.

4. Agintari nazionalak ez dute izango Eurostati pertsona fisikoen bizitza pribatuari buruzko informazioa transmititzeko obligaziorik, transmititutako informazioak pertsona horien identifikazio zuzena edo ez-zuzena ahalbidetzen duenean.

4. artikulua

1. Batzordeak neurri teknikoak eta arauen, administrazioeko eta antolaketako neurri guztiak hartuko ditu estatu kideetako agintari eskudunek Eurostati transmititutako datu estatistiko guztien konfidentziasuna bermatzeko, 3. artikuluari jarraituz.

2. 7. artikuluko 2. paragrafoko prozeduraren arabera, Batzordeak isilpeko datu estatistikoaren transmisio-moduak eta datu horiek babesteko printzipio aplikagarriak ezarriko ditu,

5. artikulua

1. Batzordeak Eurostateko zuzendari nagusiari eskatuko dio estatu kideetako agintari eskudunek Eurostati transmititutako datuak babestea bermatzeko. Batzordeak Eurostaten barne-antolaketa zehaztuko du aipatutako babesaren bermatzeko, 7. artikuluko 1. paragrafoan aurreikusita bezala Batzordea kontsultatu ondoren.

2. Eurostateko funtzionarioek soilik izango dute Eurostati igorritako isilpeko datu estatistikoak ikusteko aukera, eta estatistika-helburuetarako baino ezingo dituzte erabili.

3. Hala ere, Batzordeak Eurostateko beste eragile batzuei isilpeko datu estatistikoetara sartzeko baimena emango die, baita Eurostaten lokaletan lan egiteko kontratatutako beste pertsona fisiko batzuei ere, salbuespenezko kasuetan, eta beti ere estatistika-helburuekin. Batzordeak sarbide hori arautzen duten arauak onartuko ditu, 7. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako prozeduraren arabera.

4. Eurostatek dituen isilpeko datu estatistikoak beste datu batzuekin batera eta ez zuzenean ez zeharka ezin identifikatzeko moduan baino ezingo dira hedatu, alegia, estatistika-unitateak ezin identifikatzeko moduan.

5. Eurostateko funtzionarioek, gainerako eragileek eta Eurostaten lokaletan lan egiteko kontratatutako gainerako pertsona fisikoek debekatuta daukate datu horiek Erregelamendu honetan zehazten ez diren helburuetarako erabiltzea edo hedatzea; lekualdatu, jarduna utzi edo jubilatuta ondoren ere indarrean egongo da debeku hau.

6. 1. tik 5. paragrafora aurreikusitako babes-neurriak hurrengo hauei aplikatuko zaizkie:

a) isilpeko datu estatistiko guztiei, datu horiek Eurostati igortzea Erkidegoko estatistika arautzen duen Erkidegoko zuzenbidearen egintza batean aurreikusten denean.

b) estatu kideek beraien borondatez Eurostati igorritako isilpeko datu estatistiko guztiei.

6. artikulua

1992ko urtarrilaren 1a baino lehen 3. artikulua arabera igorritako isilpeko datu estatistikoak buruzko sekretua gordetzeko obligazioa ez urratzeko beharrezko neurriak hartu beharko dituzte estatu kide guztiak. Neurri horiek, gutxienez, estatu kide horren muga barruan funtzionarioek, Eurostateko gainerako eragileek eta Eurostaten lokaletan lan egiteko kontratatutako gainerako pertsona fisikoek egindako urratzeak barne hartuko ditu.

Estatu kideek hartutako neurriak buruz Batzordea lehenbailehen informatuko dute. Batzordeak horren berri emango die gainerako estatu kideei.

7. artikulua

1. Batzordeak sekretu estatistikoaren komite baten laguntza izango du (aurrerantzean "Komitea" deitua).

2. 2. Paragrafo honi erreferentzia egiten zaionean, 1999/468/EE Erabakiko 4. eta 7. artikulua aplikatuko dira, 8. artikuluan xedatutakoa alde batera utziz.

1999/468/EE Erabakiko 4. artikuluko 3. paragrafoan jasotako epea hiru hilabetekoa izango da.

1101/2008 (EE) Erregelamendua (EBren Egunkari Ofiziala, L 304/70, 2008/11/14koa).

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

8. artikulua

Komiteak bere presidentek proposatutako Erregelamendu honen aplikazioari buruzko gaiak aztertuko ditu, bai presidentearen ekimenez, baita estatu kide baten ordezkariak eskatuta ere.

9. artikulua

I. eranskinean aipatzen diren Erregelamenduek aldatutako 1588/90 Erregelamendua (Euratom, CEE) indargabetu egin da. Indargabeturiko Erregelamenduari buruzko erreferentziak Erregelamendu honi buruz egindakotzat hartuko dira, II. eranskinean jasotako korrespondentzia-taulari jarraiki.

10. artikulua

Erregelamendu hau *Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean* argitaratzen denetik 20 eguneko epean sartuko da indarrean.

Erregelamendu honen elementu guztiak dira bete beharrekoak eta estatu kide bakoitzean zuzenean aplikatzekoak.

Estrasburgon egin, 2008ko urriaren 22an.

Europako Parlamentuaren izenean, Lehendakaria H.-G. PÖTTERING PÖTTERING

Kontseiluaren izenean, Lehendakaria, J.-P. JOUYET

ANEXO I

Reglamento derogado, con sus modificaciones sucesivas

Reglamento (Euratom, CEE) n° 1588/90 del Consejo
(DO L 151 de 15.6.1990, p. 1)

Reglamento (CE) n° 322/97 del Consejo
(DO L 52 de 22.2.1997, p. 1)

Únicamente el artículo 21, apartado 2

Reglamento (CE) n° 1882/2003 del Parlamento Europeo y del Consejo
(DO L 284 de 31.10.2003, p. 1)

Únicamente el punto 4 del anexo II

—

ANEXO II

TABLA DE CORRESPONDENCIAS

Reglamento (Euratom, CEE) n° 1588/90	Presente Reglamento
Artículo 1, apartado 1, primer y segundo guión	Artículo 1, apartado 1, letras a) y b)
Artículo 1, apartado 2	Artículo 1, apartado 2
Artículo 2, puntos 1 a 10	Artículo 2, letras a) a j)
Artículo 3, apartado 1	Artículo 3, apartado 1
Artículo 3, apartado 2	Artículo 3, apartado 2
Artículo 3, apartado 3, párrafo primero	—
Artículo 3, apartado 3, párrafo segundo	Artículo 3, apartado 3
Artículo 3, apartado 4	Artículo 3, apartado 4
Artículo 4, apartado 1	Artículo 4, apartado 1
Artículo 4, apartado 2	Artículo 5, apartado 6
Artículo 4, apartado 3	Artículo 4, apartado 2
Artículo 5, apartados 1 a 5	Artículo 5, apartados 1 a 5
Artículo 6	Artículo 6
Artículo 7, apartados 1 y 2	Artículo 7, apartados 1 y 2
Artículo 7, apartado 3	—
Artículo 8	Artículo 8
—	Artículo 9
Artículo 9	Artículo 10
—	Anexo I
—	Anexo II